

Herri programa osatzeko ideiak

Ezker abertzalea kalera atera zen herritarren proposamenak biltzera

Lasarte-Oriako ezker abertzalea "Zure ahotsa, gure hitza" oinarritzat hartuta, herritarren iritzia jasoko duen herri programa alternatiboa prestatu nahi du.

Horregatik, ezker abertzaleko kideak kalera atera ziren larunbatean.

Sagardotegi kalean mahai bat eta buzoiak jarri zituzten bi orduz. Honetan, herritarrei herri programari buruzko informazioa eman eta azaltzeaz gain, hauen iritzia jaso zituzten bertan bete ahal zen inkestaren bidez.

Buzoia

Honetaz gain, ezker abertzaleak herritarren ahotsa, iritzia, kezka eta iradokizunak jasotzeko Xirimiri eta Artizar tabernetan eta Zabaleta auzoko dendan buzoiak dituela ere gogorazai behar da. •



"Zure ahotsa, gure hitza" lelopean ezker abertzaleak herri programa osatu nahi du. Horretarako, Sagardotegi kalean jarri zuten mahai

2011. urteko Sahara Maratoiko bizipenak

2011. urteko Saharako Maratoian 17. izan da Gorka Lasa eta gainera aste betean saharar errefuxiatuen Tindufeko kanpamenduetako egoera ezagutu duenez, sahararren egoera, kanpamenduetara bidaltzen den laguntza edo abenduan Sahara Mendebaldean gertatutako gatazkak izan ditugu hizpide berarekin izan dugun solasaldian. /5. ORRIALDEA

Emakumearen egunaren amaiera

Emakumearen Nazioarteko eguna izan zen asteartean. Egunean hainbat ekitaldi egin baziren ere, bi ekintza gehiago burutu ziren ostiralean ospakizunen baitan.

Lan eta Lan antzerki talerako lagunek *La Ratonera* lana eskaini zuten Manuel Lekuona kultur etxean.

Agatha Christie idazle handiaren misteriozko lan honek amaiera arte ez du heriotzen erruduna zein den argitzen.

Ostean, Araeta jatetxean amaitu ziren ospakizunak emakumeek egin zuten afari herrikoiarekin. •



Helduen Hezkuntzako Lan eta Lan antzerki taldeak *La Ratonera* lanarekin misterioz bete zuen kultur etxeko aretoa.

KIROLA/2

Areto-futboleko herri txapelketako lehen fasea bukatzeaz

POLITIKA/3

Oriara trenara iritsi eta igerileku irekia egongo da

GIZARTEA/6

Atzegiren 50. urteurreneko erakusketa dago kultur etxean

Riojanos

Afariak, Erretegia
bazkariak,
pintxoak, ...

**Eta orain
Igandeetan ere irekita**

Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720
LASARTE-ORIA

ELEKTRIZITATEA ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak



Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

Areto futbola bigarren faserako bidean

Ostadarrek antolatzen duen txapelketaren azken jardunaldia jokatu da hurrengo astean

Herriko areto futboleko lehenengo fasea azken txanpan sartu da. Hurrengo asteburuan amaiera emango zaio eta sailkapenean oraindik ez dira postu guztiak finkoak, batez ere, "ligila eta kontsolazio postuak," azaldu digute txapelketako antolatzaileek.

Lehia handia

Oraingoz, azken bi jardunaldiak kontuan izan gabe, Izkiña, ISU Leihoak, Buenetxea, Izarra, Semblante Andaluz eta Ainhoak finaleko lehian sartzeko aukera handiak dituzte.

Finalerako borroka horretako azken bi postuetarako hiru talde daude lehian, Ayete, Naiban eta Epel.

Ligaxkako postuetan egoteko Oria kristaldegia, Viña del Mar, Morrison's, Lekuona Mena, Illun, IOB H.K. eta Ilargi taldeak gogor lehiatu behar dira aste hauetan.

Indaux taldea beriz ligaxkako postuetan dago eta Kalaberri Z, Obelix eta Katakra taldeek kontsolazioa jokatu dute.

Bigarren fasea

Hurrengo fasean, aurreko



Asteburu honetan eta hurrengoan, gogor lan egin beharko dute talde batzuk final handiko edo ligaxkaren bidea hartzeko.

urteen antzera, hiru txapelketa egingo direla azaldu digute antolatzaileek.

Batetik lehenengo zortzi taldeek maiatzaren 21eko final handiko bidea hartuko dute.

Antolatzaileek azaldu diguten, "hauek ostiraletan jokatuko dituzte partidak, kiroldegian eta eguneko bi partida izango dira".

Gauzak honela, martxoaren

25ean eta apirilaren 1ean final laurdenetako joaneko partidak jokatu dira eta apirilaren 8 eta 15ean etorriko partidak.

Maiatzaren 6 eta 13an final erdietetako, hurrenez hurren, joan eta etorrikoak izango dira.

Sailkapeneko hurrengo zortziek ligaxka jokatu dute eta azken lauek, kontsolazioa.

Ligaxkari dagokionez, larunbatetan kiroldegian jokatuko da eta kontsolazioa, berriz, Michelingo kirolgunean.

Antolatzaileek aipatu diguten, lehenengo faseko sailkapenak ez du eragin handirik eta sorpresak egon daitezkeela iragarri dute. Izan ere, "bigarren fase honetan argi ibili behar da, finalerako bidean

sartzen diren taldeek txipa aldatzen dute eta lesionatutako jokalariek berreskuratzen doaz," aipatu digute.

Kantxarekin arazoak

Honetaz gain, arazo handia dutela azpimarratu digute, areto futboleko kantxaren egoera.

Uraren ondorioz, zoria altxa dela jakin arazi digute.

Gainera, "eguraldiarekin arazo handiak izan ditugu eta hanbat partida atzeratu behar izan dira euri edo lurrunkondentsazioa dela eta. Partida horiek astean zehar jokatu behar izan dira. Asteburuko eguraldiari begira gaude," adierazi digute.

Gauzak honela, Udalak hurrengo txapelketarako kontopuntzea espero dutela aipatu digute, "udan egingo dutela uste dugu".

Esbertza

Era berean, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete mahai eta epaile lanak egiten egon diren gazteei.

"Pozik gaude laguntzen dutelako eta esfortzua egiten dutelako," aipatu dute Ostadarreko antolatzaileek. •



Indar eta gogo guztia jarri zuten Landaberri, Sasoeta-Zumaburu, Jakintza eta Udarregi ikastetxeetako gazteek lasterketan.

Atletismoan trebatzen

Landaberri eta Sasoeta ikastetxeetako benjamin mailako gazteek Atletismo Topaketa izan zuten larunbatean Kirolguneko atletismo pistan.

Gainera, herriko gazteek norekin lehiatu izan zuten, Usurbilgo Udarregi eta Donostiako Jakintza ikastetxeetako atletak ere egon baitziren topaketan.

Atletismoko pistan ibai atletik sartzen zen haize eta

hotzari aurre eginez, txandaka hiru proba, 60 metroak, pilota jaurtiketa eta luzera jauzia egon zituzten gazteek.

Spainiar txapelketa

Martxoaren 5ean LOKEko Gaizka Ormazabal eta Irati Larrañaga Estatuko junior mailako txapelketan lehiatu ziren.

Larrañaga jauzi hirukoitzeko finalera iritsi zen eta 8. postua eskuratu zuen. Gaizkak berriz, 14. postua eskuratu zuen. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Oriara tren eta igerileku irekia martxan

Udaletxe berriaren ondoko plazari Antonio Mercero izena ematea erabaki zuten udal batzarrean

Osteguneko Udalbatzar luzean Somoto auziko mozioez gain, beste gai batzuk ere jorratu eta onartu ziren, hala nola, Euskotren Oriara iristea edo plaza bati Antonio Merceroren izena ematea.

Trena Oriara

Honela, Jesus Zaballos alkatearen hitzetan jakin genuen Euskadiko Trenbide sareak Oriara auzora Euskotren sarea luzatzeko 250 mila euroko azterketa egin eta proiektua bideragarria dela jakin arazi dutela.

Proiektuan trenbidea lurperatu eta Txartel hotelaren ondoan geltoki bat jartzea aurreikusten da.

"Maiztasun gehiagorekin, 5 minuturo izango dira trenak," adierazi zuen.

Alkateak azaldu zuenez, Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren artean proiektua gainbegiratzeko batzordea sortuko da eta Udaleko bi ordezkari egongo dira batzorde horretan, Iñaki Mugika eta Lourdes Acevedo.

Igerileku irekia

Honetaz gain, Lasarte-Oriako udaran erabiltzeko igerileku irekia izango duela ere jakin arazi zuen.

Lasarte-Oriako Udala eta Goeigi Gora eremuan eraikiko duten enpresek hitzarmena sinatu dute.

Honen bitartez, 15 urtez hotelaren igerilekuaren erabilera publikoa izango da. Herriko



Irudian, Goeigi Gorako hotelaren proiektua. Bertan ikusi daiteke estaldurarik gabeko igerilekua.

Arg.: Lasarte-OriakoUdala

kirol azpiegituren barruan sartuko da eta horregatik, kiroldegiko bazkideek txartela erakutsita sartu ahalko dira bertan eta bazkide ez direnek dagokion sarrera ordaindu beharko dute.

Era berean, kontrol eremu bat ezarriko da hotelean, eta alkateak jakin arazi zuenez, eremu horretako langileak, hoteleko 40 langileak bezala, herritarrek izango dira.

Gainera, bi zatiak ados badaude, hitzarmen honek luzapena izan dezakeela ere jakin arazi zuen.

Honen harira, EAJko zinegotzia den Iradik, batzarrean azaldu zuen, alkateak alde ona jakin arazi zuela, "alde txarra,

hotelak orain zortzi pisu izanango dituela da."

Mercero plaza

Bestalde, udalbatzarrean Lasarte-Oriako Bakezko epaile titularrak eta ordezkaren izendapenaren proposamena onartu ziren.

Era berean, Udaletxe berriaren eta Askapenaren parkearen artean sortuko den plaza berriari, Antonio Merceroren izena ematea onartu zen.

Lehenengo puntuak, EBren abstentzioa izan bazuen ere, bigarrenak ia oposizio osoaren abstentzioa izan zuten, PPko ordezkariarena izan ezik.

Dagokion batzordean eztabaidatzeko gaia zela

argudiatu zuen Ezker Batuak, baita EAJk ere. Eta azken alderdi honek beste pertsonaia edo toponimia gehiago egon zitekeela aipatu zuen.

Ezker abertzaleak Antonio Mercero bere ibilbide eta lan eskergarengatik herriaren eskertza egingo den museon izango duela adierazi zuen eta plazari toponimia azterketako izenen bat jartzea hobeki ikusten zuela aitortu.

Galderak eta eskaerak

Honetaz guztiaz gain, alderdien galdera eta eskaeren txanda izan zen.

Honetan, BOE azken zozketa, 2011 urteko aurrekontua eta finantza plana, aurreko

zenbakian argitaratutako Ana Urchueguia eta PSEren aurkako pintadak, Urchueguia anderea udalbatzarrean ez egotea eta honen zinegotzi karguarekin zer gertatuko den eta diru laguntzen araudiari helegiteak egitearen epea luzatzea izan ziren gaiak.

Etxebizitzaren zozketa

Alkateak ezker abertzaleari azaldu zionez, BOEko zozketan eraikuntza enpresek jarritako baldintza izan zen aurreko zozketako zerrenda mantentzea.

Era berean, herritar batek Arartekora gai honi buruzko keza eraman duela eta honi eskatutako informazio emanango zaiola adierazi zuen EAJren galderari erantzunez.

LOHPak eta EAJ bat erori ziren aurrekontuei buruz galdetzen. 2010eko likidazioa positiboa izanik, 2011ko finantza plana egitea beharrezkoa ez dela eta kontuhartzailea eta arlo desberdinetako teknikariak 2011ko aurrekontuak eta 2012-2014 urteetako finantza plana aurkeztzeko lanean daudela jakin arazi zuen alkateak.

LOHPak Urchueguia andereari buruz egindako galderari, hari zuzenean galdezko adierazi zion.

Bestalde, LOHP eta Ezker abertzaleak diru laguntzen araudiari helegiteak egitearen epea luzatzea eskatu zuten eta epea aste bete gehiago irekia egotea adostu zuten. •



Lehenengo planoan ikusi daiteken kotxeak bi bidaiariak eraman zituzten ospitalera.

Arg.: Xabier Martin

Istripua Lasarte-Oriako erdigunean

Bi kotxeek talka egin zuten ostiralean, 11:30ak aldera, Kale Nagusia eta Ola kalea artean dagoen biribilgunean.

Istripua biribilgune erdian gertatu zenez, Kale Nagusia eta Beko errota kaleak norabide batean itxi behar izan ziren eta horren ondorioz,

ilarak sortu ziren gure herrian.

Herriko udaltzainek jakin arazi digutenez, ez da zauritu larririk egon. Hala ere, kotxeetako batean zihoazen bi bidaiariak ospitalera eraman dituzte bertan aztertu eta lesiorik duten jakiteko. •

BIYAK-BAT

Erretiratuen bidaia Benidorrera

Biyak-Bat elkarteak bazkide guztientzako 15 eguneko bidaia antolatu da Benidorrera. Irteera maiatzaren 15ean izango da eta itzulera 29an. Benidorreko Cristal Park izeneko hotelean hartuko da ostatu, osoko pentsioan eta edariaren erregimen berezian.

Bidai honetan gainera Turiaren hiriburua, hau da Valentzia ezagutzeko parada egongo da. Eta guzti hau 559 euroko prezioa izango duela. Norbaitek logela konpartitu nahi ez badu 240 euroko gehigarria ordaindu beharko du.

Biyak Bat erretiratuen elkartetik gogorarazi nahi dute bidai hau aurrera atera ahal izateko gutxienez 50 pertsona beharko direla. Norbaitek informazio gehiago nahi izanez gero elkarteak Kale Nagusian duen egoitzatik pasa beharko du. •

IKASTAROA

Elikagaien kalitate eta segurtasuna

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalen Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, elikagaien kalitateari eta segurtasunari buruzko ikastaro bat eskainiko du.

Ikastaroa martxoaren 24an emango da, Osasun zentroko bigarren solairuko areto polibalentean. Orduetgia 16:00etatik 20:00etara izango da.

Informazio gehiago jaso edo izena emateko deitu 943 53 33 03 telefonora zenbakira. •

Mikel Erguin Dantzari, koreografo eta mimoa

“Bi mila lagun dantzan jarriko ditugu”

■ Martxoaren 20an eguerdiz Flash Mob erraldoia grabatuko da Zubietan ■ Denek elkarrekin dantzatuko dute ■ Dantzari zarauztarrak prestatu du koreografia: ikasteko erraza eta ikusgarria

Hartu nahi dut arnas da datorren igande eguerdian Zubietako plazan dantzatuko den abestiaren leloa. Flash Mob delakoa grabatuko du Zero Zabor elkarteak: Bi mila lagunek elkarrekin dantza egin eta “Erraustegirik ez” jartzeko eskatuko dute, Zubietako proiektua sei urtez atzeratzeko. Mikel Erguin zarauztarrak sortu du Flash Mob erraldoi honen koreografia eta herriz herri ezagutarazten ari da beste lagun batzuekin batera. “Musika ipini orduko dantzarien artean magia sortzen da, zoragarria da” adierazi du dantzariak. Duela aste batzuk, dantza itsasontzi batean egin eta grabatu zuten. Aurreko larunbatean Flish Mob-a dantzatu eta grabatu zuten hainbat lagunek Zumaiako itsas ertzean. Igandean Zubietan grabatuko dute Flash Mob-a.

JON ALTUNA

Mikel Erguin zarauztarrak tango, saltsa eta aretoko beste dantzak egin eta erakusten ditu eta bestalde, mimoa ere bada. Dantza klaseak ematen oti-ogibidea ateratzea Euskal Herrian zaila dela adierazi digu. Antzerki talde ezberdinetan aritu da mimoa egiten eta “Monstruoa” izeneko lana prestatu dute lagun batek eta biek. Aurreko larunbatean Bergarako gaztetxean eskaini zuten. Baina guk martxoaren 20an Zubietan egingo duten Flash Mob erraldoia zer den azaltzeko eskatu diogu: “jende askok elkarrekin koreografia berdina dantzatzea da Flash Moba: batera altxatzen ditugu eskuak, batera egiten dugu salto, batera joan aurrera eta atzera, giro polit batean elkarrekin dantza egingo dugu. Martxoaren 20an eguerdian ahalik eta jenderik gehiena

bildu nahi dugu Zubietako plazan, bi milara iristeko helburua jarri dugu, uste dugu hurbil ibiliko garela eta pasatzen badugu hobe”.

Nola sortu zen asmoa?

Zero Zabor taldekoen ideia da, niri dantzaria izanik koreografia muntatuko nuen eskatu zidaten eta horrelaxe egin nuen. Lady Gagaren musikarekin, abestia oso polita da eta “Hartu nahi dut arnas” letra zoragarria dauka, erraustegirik ez jartzeko eta sei urteko atzerapen edo moratoria eskatzeko.

Koreografia zuk asmatu zenuen, beraz?

Bai, Patxo Zarauzko beste dantzari batekin, bion artean egin genuen. Musika eta letra aukeratuak zeudenez, behin eta berriro entzunaz sortu genuen, burura etortzen zitzaizkigun pausak probatuz. Erraustegiarekin inguratuko gaituen ke beltza aipatzen da letran, eta

baita denok batera aurre egin behar diogula ere, eta beraz dantzan eskuak helduta denok batera aurrera egiten dugu. Magia momentua ere badauka, iritsi da, hau da momentua esaten denean.

Nola lotzen da dantza musikarekin?

Bideotxo bat grabatuko dela eta kamara non kokatu-ko den jakinda saiatu gara esanahia daukaten pausok sortzen, batez ere, zubietarrei laguntza denon artean, giro onean eta bihotzarekin eskainiko zaiela azalduaz. Zubietarrei eta aldi berean denoi.

Hondakinen eta erraustegiaren gaia, irudikatu nahi izan al duzue dantzan?

Hondakinak baino nahiago izan dugu bizitza, bihotza, sentsibiltatea, maitasuna,... eta horiek adierazi. Hondakina egin bagenu, tristura gehiago egongo litzateke, beste dantza bat izango litzateke. Nahiago genuen jendea elkartu, alai-

tu eta ondo pasatzea. Askotan protesta egiten duena galtzen ateratzen da, triste dago, eta kasu honetan giro onean elkartu nahi izan dugu bizitzaren aldeko esanahiarekin.

Entseguak zer moduz doaz?

Zoragarri. Herriz herri ari gara erakusten, herri asko pasa ditugu, deseaten egoten naiz joan eta jendea ikusteko. Gipuzkoa osotik datoz dantzara, herri batzuetan jende gutxi egon da eta beste batzuetan asko.

Zero Zaborrek zabaldu du asmoa eta taldetxo bat gustura ari gara Gipuzkoa osoan herriz herri dantza erakusten. Gero ikasi dutenak besteie erakusten ari dira eta hori ere oso polita izan da.

Beste zerbait esan nahi?

Martxoaren 20an etortzeko Zubietara. Zoragarria izango da denok dantzan elkarrekin ikustea. 10:30etan egingo dira entseguak ez dakitenek ikasteko eta 13:00-13:30ak inguruan izango da bideoaren grabaketa. Bideo-monitoreak ere jarriko dira dantza begiratzu jarraitzeko.

Koreografia erraza da, bi mila lagunek dantzatu eta ondo pasatu dezaten prestatua baina ikusgarria ere bai. Horretan saiatu gara, ikusgarria izan dadila baina ikasteko erraza. Mundu guztia animatu nahi dugu: aurretik ezer prestatu ez badute ere, lasai joatean daukate, egunean bertan ikasi eta dantzatzeko. •



“Zoragarria izango da igandean denok elkarrekin dantzan ikustea. Saiatu gara koreografia ikusgarria eta aldi berean ikasteko erraza sortzen.”

Pausoak ikasteko: www.gipuzkoazz.com helbidea

Entsegu orokorra asteazkenean

Gipuzkoa osoan zehar egiten ari dira azken asteetan datorren igande eguerdiko flash Mob-a prestatzeko saioak. Lasarte-Orian datorren asteazkenean egingo da entsegu orokorra: Sasoetako ikastetxean arratsaldeko 19:30etatik aurrera.

Zubietako plaza 200 koardantetan banatuko dute eta koardante bakoitzean 10 lagun arituko dira dantzan. Horietako batek gainontzekoak gidatuko ditu. Hala, zalan-tzaren bat izanez gero, pausoa galtzen dutenek aurrekoari begiratu eta dan-

tzaren haria berreskuratzeko aukera izango dute.

Asteazkenean dute ekime-nean parte hartuko duten lasarteoritarrek probatzeko aukera: Sasoetan jada koardantetan banatuta, euren taldekoekin dantzatuko dute eta.

Guztira gutxi gorabehera 100 lasarteoritar izango dira dantzan Zubietako plazan igandean eguerdikoa 13:30etatik aurrera.

Goizean goiz hasiko dira prestaketak martxoaren 20an Zubietan. Egitarau zabala prestatu dute jai giroan erraustegiaren moratoria eta

hondakinen beste kudeaketa era bat aldarrikatzeko. 10:00etatik aurrera dantzaren entseguak egingo dira.

Porrotx eta Marimotots pailazoen eskola bizkor batzuk emango dituzte, dantza ikasteko astirik izan ez dutenentzat. Gainera, otartekoak, barriotea eta freskagarriak egongo dira nahi dutenentzat.

Disko jartzaile batek jai giroa alaituko du, eta euskal dantza, break eta dantza latinoko erakustaldiak izango dira. Gutxi gorabehera 13:30ean ekingo diote flash mob-a dantzatzeari. •



Asteazkenean 19:30etan egingo da entsegu orokorra Sasoeta ikastetxean.

Gorka Lasa Saharako maratoiko korrikalaria

“Lasterketa bat baino gehiago da”

■ Saharako Maratoian 17. izan da Gorka Lasa lasarteoriatarra, euskaldunen artean bigarrena
 ■ Astebete egon da Saharako errefuxiatuekin ■ Ez da kirol bidaia soilik, humanitaria ere bai

Otsailaren 25ean, eguerdian, abiatu ziren Saharako Maratoian parte hartu duten euskaldunak Madril aldera, bertan Tindufeko kanpamentuetara eramango zituen hegazkina hartzeko. Hauen artean zen aurtien ere Gorka Lasa herritarra. Maratoian korrika egitera joaten dira, baina gainera bidaia humanitaria ere bada. Aste betez hango egoera hurbiletik ezagutu dute eta ahal duten neurrian babesa eta laguntza eskaini diete kanpamentuetan baldintza zailtan diren sahararrei.

Gorka Lasa aste bete egon da Argeliako desertuan, Tindufeko Sahararren kanpamentuetan. Batetik Saharako maratoian korrika marka ona egin du eta, bestalde, hirugarren urtez jarraian bere babesa eskaini die bertan diren errefuxiatu sahararrei. Bidai honetan ikusi eta sentitu dituenaz hitz egiteko bildu gara berarekin.

Lehenik eta behin, zer moduz Maratoian?

Ez nik uste bezain ondo. Bidai honetan korrika egitea aitzakia bada ere, ondo prestatu naiz joan baino lehen. Hemen denbora bat egiten duzu, baina gero han saiatu eta ez dut lortzen. 42 kilometro hiru ordu eta erdian egin nahi nuen nik, baina azkenean hamar minutu gehiago egin ditut. Behintzat aurtien hobeto sentitu naiz, aurreko urtean porrot eginda amaitu nuen, eta aurtien osorik.

Nolako esperientzia da han korrika egitea?

Hemengo eta hango tenperatura eta giroa ezberdinak dira. Gogorra egiten da aldaketa. Lurzoria ere desberdina da, gora-beherak ditu, harriak, hondarra,... hemengo maratoiek ez dauka zerikusirik.

Zenbagarrena izan zara sailkapenean?

Joan garen euskaldunen artean bigarren geratu naiz, eta orokorrean 17. tokian. Ez dago gaizki kontuan hartuta 126 korrikalari irten eta 120 iritsi zirela. Alde horretatik gustura nago. Nazioarteko maratoi bat izan aren, goi mailako kirolari gutxi joaten da, beraz maila ez da oso altua. Hala ere han egon behar da proba gogor hau egiteko.

Otsailaren 25an irten zineten, zer moduzko bidaia izan zen?

Bidaia oso luze egiten da. Euskal Herriatik eguerdian ateratzen zara eta hurrengo egunean, goizeko 6-7ak aldera

iristen zara Tindufera. Barajasen hegazkinak bi ordu eta erdiko atzerapena izan zuen eta aireportuan zain egotea oso astuna da.

Non hartu duzu ostatu?

Hiru urtetan joan naiz eta familia berdinaren etxean hartzen dut ostatu, ia etxekoa naiz jada. Elkar ezagutzen dugunez, irrikitan egoten gara elkar ikusteko eta elkarri kontuak esateko. Urtean zehar telefonoz hitz egiten dugu, baina ez da berdina aurrez aurre egotea. Oso esperientzia polita da bertakokak eta maratoian parte hartzen dutenak ezagutzeko. Harreman politikak sortzen dira.

Zer nabarmenduko zenuke aurtengo bidaiaz?

Ospitaleak, emakumeek antolatzen dituzten tailerrak eta eskolak ikusi ditugu. Botikak eramaten ditugu, esker honez hartzen dituzte, baina gero ez dakite nola erabili. Poliklinikak eta Gipuzkoako ospitaleak ematen dituzte ondo etorriko zaiela pentsatuz, baina benetan hori dakit. Lotura falta da eta horregatik hango hainbat ospitale eta ambulatorioko kontaktuak ekarri ditut. Ea hurrengo urteatarako harreman hori lotu eta benetan behar dituzten botikak eramaten ditugun.

Bidai honek bi alde ditu, kirola eta laguntza, ezta?

Han ikusten duzunaren arabera badakizu zer falta duten eta zer ez. Hasiera batean esaten dizute jana dela, eta nolabait hori karabanari esker aseta dago. Hara joan nintzenean kableak, guraizeak, sokak, linternak,... behar dituztela konturatu nintzen.

Hala ere, azken urte honetan gauzak aldatzen ari direla konturatu naiz. Kanpamentuetako familia gehienek daukate senitarteko bat kanpoan eta dirua bidaltzen die. Adobezko etxeak kanpotik zementuz edo porlanez babestu dituzte, eta batzuk margotu ere bai.



126 korrikalarik parte hartu zuten Saharako maratoi gogorrean eta 120k amaitu.

Independenzia aldarrikatu zutenetik 35. urteurrena ospatzen dute otsailaren 27an...

Aurtien igandea izan da. Smarako kanpamentuan ginen, politikariak eta goi karguak joan ziren eta ondoren desfile bat egin zuten, polita, oso koloretsua, ekitaldi politikoa- ren aurretik. Ikusgarria izaten da eguna.

Zein esperientzia berri ekarri dizu aurtengo bidaiaz?

Lehen aipatutako hazkunde ekonomikoa. Honek bi irakurketa merezi ditueta uste dut. Batetik, orain dela hiru urte esaten ziguten ez zutela erabiten berri eta handirik sortu nahi, beraien burua hor probisionalki ikusten zutelako. Egun ez dakit gauza aldatu den,

horregatik hasi diren euren kanpamentuak txukuntzen, edo hor dauden bitartean ahalik eta erosoen bizi nahi duten.

Bigarren irakurketa zera da, gizarte mailak sortzen ari direla, eta hori ez dut ondo ikusten. Hemendik bidaltzen diren baliabideak berdintsu banatzen dira familien artean, baina kanpoan dituzten senitartekoen bidez jasotakoa ere hor dago. Ezberdintasun handia sortzen ari da, eta hori ez da ona.

Eta politikoki aldaketarik?

Ez da ezer berririk, baina kontratu gara saminduta daudela. Abenduan Aaiungo kanpamentuan gertatu ziren liskarrek nazioarte mailan isla gehiago izango zuela uste zuten. Europako Elkartearen Marokoren kontra altxatuko zirela, baina ez zen horrela izan. Aukera polita galdu dela uste dute eta Marokoren inpunitate osoa agerian geratu dela.

Lanean jarraituko al duzu bueltatu eta gero?

Bai, hiru urteren ondoren, gero eta lotuago zaude, gauza gehiagoz enteratzen zara, eta beti daukazu zerbait egiteko eta ahal bada laguntzeko ilusia.

Iaz ehun lagun joateko erronka jarri zenioten zuen buruari...

Erronka hori beti izango da hor. Gure helburua, azken finean, bertara joan eta Saharako herria benetan nola dagon hemen azaltzea da. Ehun edo behar direnak joanda. Aurtien jende gutxi joan da, nire ustez bi arrazoi nagusi direla eta: batetik, krisia, azken finean otsailen aste bete jai hartu eta 900 euro ordaintzea... egoera honetan denentzat ez da posible, eta bestalde, abenduan Mendebaldeko Saharan gertatutako liskarrek mesede gutxi egin dio gutxi honi. Konturatu gara jendeak ez dituela bereizten Argelien dauden kanpamentuak eta Mendebaldeko Sahara, zer diren, edo non dauden. Jendeak Sahara entzun eta dena zaku berean sartzen du. •



Gorka Lasak hirugarren aldiz baktu du Tindufeko kanpamentuetan urtero egiten den Saharako maratoia.

Atzegiren 50 urteko ibilbidea iruditan

■ Adimen urritasuna duten pertsonen Gipuzkoako elkartearen historiako kartelen erakusketa jarri dute Kultur Etxean ■ "1960az geroztik etorkizun hobea imajinatzen" ari dira urtez urte

Gipuzkoan sortu zenetik 50. urteurrena ospatzen ari da Atzegi, adimen urritasuna duten pertsonen laguntzeko elkartea. Abenduaren 27an festa egin zuten Kursaal, bi mila atzegizale baino gehiago elkartu ziren bertan eta bestalde, hilabeteotan herriz herri erakusketa bat dabil, 50 urte hauetan elkarteak erabili dituen kartelak erakutsiz. Hain juxtu aurreko astean iritsi zen Lasarte-Oriara eta datorren ostiralera, hilaren 18ra, arte ikusi daiteke Manuel Lekuona Kultur Etxean. Zintzilikatutako karteletako argazkietan bi herritar ere ageri dira, Jon Roncero eta Asier Berraondo.

Adimen urritasuna duten pertsonen egoera gizarteratzeko hainbat kanpaina egin ditu Atzegi elkarteak, eta kanpainatan erabili dituen kartelen erakusketa, 50 urte hauetan izan duen bilakaeraren isla da. Hasieran, gizarteak ez zuen pertsona hauen errealtatea ezagutu ere egiten eta lehen karteletan elkarteak laguntza eskatzen zuten, gerora pixkanaka pertsona hauek gizartearen bat gehiago izatera pasa dira, eta azken urteko leloa, "egunen batean ez da kartel honen beharrik izango", gizartearen erabat normalduta izatearen seinale izango litzateke.

Atzegiko arduradunek eurek azpimarratu dute 1960an elkartea sortu zenetik elkartearen mezua aldatzen joan dela, lehen urtetan 1980 urtera arte "gizarteak ez du adimen urritasunaren arazoa ezagutzen, Herri Administrazioak ez dio inolako arretarik eskaintzen eta egoera horretan Atzegi laguntza eskatzen du, "karitatea" ia-ia".

Edozein bezela

Gerora, jadanik 80 eta 90. hamarkadetan, gizarte arazoa ezagutzen hasten da, poliki-poliki elkartasuna eta laguntza eskaintzen die adimen urritasuna duten pertsonen eta hauen familiei eta bestalde agintariak ere dagozkien erantzukizunak bere gain hartuko dituzte pixkanaka. ATZEGIk zera aldarrikatzen du orduan, adimen urriko pertsonen "besteok bezala" bizi nahi dutela.

2000. hamarkadan jada pertsona horiek gizarteko eginkizunetan gero eta gehiago eta modu aktiboagoan parte hartu nahi dute, eta Administrazioa erabat murgiltzen da pertsona horiek gizarteratzeko eginkizunetan. "Horretarako, lagunak behar dituzte, laguntzaileak, boluntarioak eta Atzegizaleak, Gipuzkoako bazter guztietan, afektu eta begirunez tratatze-

ko, behar dutenean orientatzeko, eta dituzten mugetakoren bat gainditzeko onean behar izanez gero, laguntzeko".

Laguntzeko modu ezberdinak daude, laguntzaile, bazkide edo soilik atzegizale izan zaitezke.

Atzegi, 50 urte imajinatzen

Adimen Urritasuna duten Pertsonen Aldeko Gipuzkoako Elkarteak, gaur egungo ATZEGI 1960. urtean sortu zen, duela 50 urte alegia.

Une hartan, lehen familia sortzaileak deialdi bat eginez hasi ziren bidea egiten, hain zuzen arazo hau partekatzen zuten familiak biltzeko eta, horrela, seme-alaben etorkizunera begira elkarrekin borroka egiteko.

Atzegiko arduradunek adierazi dutenez, "Adimen urritasuna duten pertsonen laguntzeko zerbitzuei, hezikuntza, lan, egoitza, sorospen, aisia eta tutoretza arloetakoiei, dagokienez, Elkarteak sortu zuten geroztik gure lurraldean izandako bilakaera aztertzen badugu, pozik egiaztatu ahal izango dugu iritsitako lorpen eta aurrerapenak oso-oso nabariak izan direla".

Ekintza txiki ugari

Ez da dudarik asko aldatu dela pertsona hauekiko jarrera eta aldaketa horretan izandako babesa eta helburu jakinarenkin asmo sendoz egin diren ekintza apal ugari nabarmendu ditu elkarteak: "gipuzkoar guztien laguntza, ahalegin eta elkartasunari esker izan da posible adimen urritasuna duten pertsonen kolektiboarekiko sinpatia eta begirunea".



Goiko irudian Asier Berraondo igerian. Behean Jon Roncero besotan. Ostiralera arte dago zabalik erakusketa.



Kanpainak egiten ziren urtero gizartearen kontzientzia sortzeko, eta kanpaina horietan erabili diren kartelak ikusi

daitezke hilaren 18ra bitartean Lasarte-Oriako Kultur Etxeko lehen solairuan, gizartearen aldaketaren adierazgarri:

"hasieran adimen urritasunaren arazoaren inguruan ezjakintasun, errefus eta ardurarik eza zen; 70-80 urteetan, sinpatia; hurrena 90eko hamarkadan elkartasuna; eta, azkenean, 2000 urtetik aurrera, eskubideei buruzko kontzientzia sendoa. Hori guztia islatzen dute elkartearen historiako kartelak".

Herritarrak erakusketan

Aipagarri da, Jon Roncero eta Asier Berraondo herritarren argazkiak erabili zirela karteletako bi egiteko. Jon gurasoaren besotetan ageri da duela urte batzuek egindako kartel batean eta Asier, aldiz, ur azpian igerian beste batean.

Kartelen errepasoa, 2010. urteko kartelaren mezuarekin amaitzen da: "Egunen batean ez da kartel hau jarri beharrik izango, imajinatzen duzu?" etorkizun oparoaren abiapuntua, pertsona hauek gizarteko beste pertsonekin harreman normalak eta esaterako lagun koadrila izatea irudikatuz.

Pertsona hauei eta elkarteari laguntzeko modu ezberdinak daude. Iaz, Lasarte Orián, 50 bazkide, 47 laguntzaile eta 101 Atzegizale, ziren.


Kultur Etxeko lehen pisuko erakusketa sarrerako mahaian esku orri batzuek daude Atzegiren laguntzaile egiteko aukera eskaintzen dutenak. www.atzegi.org helbidean ere egin zaitezke atzegizale. •

ATZEGI elkarteak 50 urte darama adimen urritasuna duten pertsonen eskubideen alde lanean. 1960tik egindako kanpainetako kartelen erakusketa jarri dute Kultur Etxean

Egunero

Erakusketa

ATZEGI, 50. URTEURRENA erakusketa ikusgai. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Erakusketa

SHANDRA PEREZ LUCEROREN margolanak ikusgai. Jalgi kafe-antokian, egun osoan zehar.

Astelehena, 14

Zine soziala

AGUA CON SAL filma eskainiko da Danok Kidek antolatutako VII. Zinema Sozialaren barruan. Ondoren Inmigratioari buruz arituko da Esperanza Latina elkarteak. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30ean.



Asteazkena, 16

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "GURASOOK ERE BEHAR DUGU LAGUNTZA" Pilar Semina-

Irteera, oparien dendatik

EXIT THROUGH THE GIFT SHOP filma Okendo Zinema Taldearen eskutik.

Banksy artistaren lehenengo dokumentala da. Bertan, Terry Guetta frantses eszentriko baten obsesioetan dago oinarrituta.

OSTEGUNEAN, HILAREN 17AN
KULTURETXEAN 21:30EAN
SARRERA, 4,20 EURO

rioren eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

Igandea, 20

Zinea

ZIGORTZAILEAK euskarazko haur-errentzako filma eskainiko da. Sarrera, 3, 30 eurokoa da. Manuel Lekuona kulturetxeko auditorioan, arratsaldeko 17:00etan. EUSKARAZ.

Ostirala, 18

Antzerkia

KING KONG-EN NESKA antzezlanak Josune Monzon aktorearen eskutik. Jalgi kafe-antokian, 22:30ean. EUSKARAZ.

Astelehena, 21

Zine soziala

RETORNO A HANSALA filma eskainiko da Danok Kidek antolatutako VII. Zinema Sozialaren barruan. Ondoren Koperazioa eta solidaritateari buruz arituko da Medicus Mundi elkarteak. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:30ean.



Asteazkena, 23

Ikastaroa

TXAKURRAK ONDO HEZITZEKO IKASTAROKO hirugarren saioa. Bertan baliozko legediari buruz arituko dira. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Osteguna, 24

Filma

Topaguneak antolatutako FILM LABURREN ZIRKUITUko emanaldia. Bertan euskarazko hainbat film labur eskainiko dira. Jalgi kafe-antokian, 21:30ean, EUSKARAZ.

Ostirala, 25

Dantza

MIKEL URDANGARIN ETA TRASPASOS D.T.-k "Nora" proiektua

eskainiko dute Lasarte-Oria Dantzan egitasmoaren barruan. Sarrera, 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.



Larunbata, 26

Antzerkia

"HELEN" haurrentzako antzerkia Panta Rhei taldearen eskutik. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.



Igandea, 27

Zinea

ENREDADOS haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.



Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181

Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Korrika 17ko arropa salgai Urruzola mertzerian

Korrika 17aren arropa, kamisetak, sudaderak, etab. erosi nahi duten herritarrek badute lekua.

Materiala Urruzola mertzerian, Kale Nagusia 41 zenbakian, salgai egongo da euskararen lasterketa erraldoiaren amaiera arte.

Sorgin Dantza

Ttakin Kultur Elkarteak 25. urteurreneko Sorgin Dantza saioan parte hartu zutenei jakin arazi nahi die, Udalak ospakizunetan parte hartu dutenei eman dizkien oroigarriak, (boligrafoa eta giltzata-

koa), Ttakunen egoitzan daudela, Geltoki kalea 4an, 09:00etatik 13:30era eta arratsalde 15:30etik 19:30era.

Eskolako estutxe bat galdu da

Eskolako estutxe bat galdu da, granatea, Kutxatik Euskotreneko geltokiaren bidean.

Estutxearen barruan ahots grabagailu bat, 2 pendrive eta giltza bat zeuden besteak beste. Itzultzea sarituko da.

Harremanetarako telefonoak: 667 680 498 / 667 315 879 (Izaro, M^a Angeles).

Inauterietako argazkiak

TXINTXARRITIK jakin arazi nahi

dugu, inauterietan ateratako argazkiak, www.txintxarri.info web atarian dituzuela ikusgai eta eskuragarri.

Ikastetxeetako ospakizunak, San Ferminetakoak, desfile bateratuarenak, kaleko giroa eta herritarrek moztortuta, tabernak dekoratuta, Euskal Inauterietakoak... topatuko dituzue bertan.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, hiru erloju, urrezko pultsera, eraztun bat, diru zorro bat, neskaren esmuturreko bat, bi zilarrezko

pultsera, betaurreko graduatuak, poltsa eta telefono mugikor bat, haur zamarra bat eta bi larruzko zamarra.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesik dutenei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua.txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Gaia eta joko ugari bertso desafioan

Azpeitiako bertso eskolak gogor egin zion aurre Lasarte-Oriako bertso eskolari

Lasarte-Oriako bertso eskolako kideak Gipuzkoako Txapelketarako prestatzen ari dira. Horregatik, hainbat bertso desafio bota dizkiete herri desberdinetako bertso eskolei.

Zarautz eta Gabiriaren aurka lan ona egin ostean, oraingoan bertso kontuetan ospe handia duen eskola izan dute aurrean, Azpeitia.

Hirugarren bertso desafioa hau ostirala gauean egin zen, Zabaleta Auzolanek antolatuta auzoko garajea.

Beñat Iguaran, Zigor Iriondo eta Andoni Otamendi izan ziren ostiralean Azpeitiko eskolako Beñat Lizaso, Nekane Zinkunegi eta Eneritz Arzallusi aurre egin zieten Lasarte-Oriako bertso eskolako kideak.

Gai jartzaille lanetan, beste bi saioen antzera, Imanol Lizardi egon zen.

Binakako lana

Bapo afaldu ostean, agurrekin hasi zen gaua. Eta jakin genuen azpeitiar eta bi errezildarrak borroka gogoekin zetozela.

Binakako lanean, garajea betetzen zuten ikusleen txalo eta algarak sortu zituzten.

Beñat Lizaso eta Zigor Iriondok Gipuzkoako txapelketara bi eskolek bidaltzen dituzten kide kopuruei buruz aritu ziren, Azpeitiak lau eta Lasarte-Oriak zazpi. Buruz buruko honetan "azpeitiar bat hobeago da, zazpi lasartear baino" entzun genuen.

Ostean, Eneritz Arzallusek Zabaletara iritsi eta ikusten duen mutil bati, Beñat Iguaran, gaztelaraz galdetzen dio non dagoen bertso desafioa. "Zinta horrekin zuk ere andaluzaz ez duzu ematen" edo "nik entzuna nuen, bertsoan ere erderaz egiten



Beñat Lizaso, Nekane Zinkunegi eta Eneritz Arzallusi izan ziren Beñat Iguaran, Andoni Otamendi eta Zigor Iriondori aurre egin zieten enak.

zenutela" entzun ziren lan horretan.

Eta azkenik, Andoni Otamendik Somoton zer gertatzen den azaldu behar izan zion Nekane Zinkunegiri. "Alkate-

sa aberastu zen herritarren kontura" edo "okerrena da, egin duela, herritarren bozkekin" esan zituzten lanean.

Ostean, banakako lanetan eta puntuari erantzunez gai

desberdinak jorratu zituzten. Inauteriak izan direla eta, mozorrotuak ere bertsoan egin zuten. Eta agurrekin amaiera eman zitzaion bertso desafio gogorrari. •

Martxoaren 16an, zuekin berriro



Michelin

Kontsumoko Kooperatiba
S. Cooperativa de Consumo



Carrefour express

Juan XXIII.a plaza
Lasarte-Oria